

Ekofeminismoa, garatzeke dagoen teoria. Ingurune-feminismoaren gatazken hastapenak

Jone Martínez Palacios

Politika eta Administrazio Zientzian lizentziatua

Ekofeminismoa ideologiaren munduan ahaztutako teoria-sistema da. Osoki ezezaguna den gorputz teoriko horri ez zaio falta konplexutasun teorikorik, adarrik, kontraesanik, zentzurik eta edertasunik. Ekofeminismoaren munduan zehar bidaiatzeko gida bat izan nahi du artikulu honek. Mugimendu sozial berri bat (feminismoa) beste bati (ekologismoari) begira jarri berri zaio, eta begirada zintzo hori estai teorikoan zein praktikoan garatu behar den arren, etorkizunean mugimendu sozialen tendentziei erantzungo ote dien galdetzea da egokiena.

The ecofeminism has been forgotten in the world of political theory. This unfamiliar ideology is not lacking in theoretical intricacy, in contradiction and in beauty. This article, wants to be a travel map to have a good drive in the ecofeminism world. A new social movement (feminism) started to wash another social movement (ecologist), and if it is true that this new construction has to develop, the final objective of this article is to find if this movement answers to a new social tendency or not.

Ez da munduan existitzen nire askatasuna lapur diezadakeen muga, ez zerradura nahikorik
Virginia Woolf (1921)

Garapenaren izenpean aurkitzen duguna garapen txarraren prozesua baino ez da, emakumearen eta naturaren kontra doan garapen txarra (...) honek sustrai patriarkalean du eraikita bere azpiegitura, homogeneitatea, menerakuntza eta zentralizazioa ditu egungo garapenak zutabe. Honek guztiak, natura-emakumea; emakumea-natura ditu morroi...
V. Shiva (1999)

Aihenbelarra belarrietatik irteten zait ari,
neure begiek pisilo mugikorretan
ari dira bihurtzen eta
ahoa lore moratuez
bete zait jada.
Nire sustraiek oztopatzen dute logela,
gauza guztiekin nahasten naiz.
Neure hankek zorua
apurtzen hasia dute.
Nahastu nahian...
Nire ahora jada lore morez beteta
gatzagi da nire gorputza.
Eta aihenbelar nago.
Arantzadun.
Bakartasunean.
Natura bihurtuta...
Metamorfosia (Belli, G., 1992)

Sarrera

Bereziki ongi islatzen dute bi feminista horien hitzek ekofeminismoa sortzen bide duen esentzia. Lehengoa feminista, bigarrena ekofeminista, baina biak emakumearen askapenean murgildutako filosofiaren zaindaria. Feminismoak jasan duen garapenaren ondorioa da, hitz gutxitan, ekofeminismoa. Alegia, feminismoaren ekologismoari begira jartzearen ondorioa. «Erredukzionismoan jausi nahi ez izatearen ondorioa» (Mies eta Shiva, 1993: 41).

Virginia Wolf-ek adieraziriko emakumeen askapenerako oihu horri V. Shiva-k naturaren askapenerako kantua gehitzen dio. Bitartean, bata 1921ean esan zuenaren eta besteak 1999an azaldutakoaren artean, ideia, lotura teoriko eta pentsamendu politiko anitz garatu dira, teorizazio berriak, ardura berriak. Feminismoaren eguneratze holistikoa koka dezakegu ekofeminismoa, ba al da hori hipotesi egokia? Zer mandabide filosofikoa —halaxe izatekotan— jorratu behar izan dute feministek ekofeminismoaren tesiak besarkatzeko? Eta non gelditzen da ekologismoa honetan guztian? Galdegai zabala dugu oraingoan, hala ere, holaxe da ekofeminismoa: zabala, konplexua eta askotan sinbolista. Eran-tzuteko posible eta beharrezko galderak dira, ideologiaren mundu-planoa eguneratzean atzera gelditu nahi ez badu.

Garapen txarrak emakumeen eta naturaren kontrako estrukturak eraiki ditu, eta biak elkarrekin aska daitezten daude lanean ekofeministak. Hala, ba al da ekofeminismoa feminismoaren makurgune berri bat? Eta horrela bada, ez al da feministen borroka zentrala denari lepo egiten ari? Jaioberria den mugimendu honek badiu adierazpen filosofiko, politiko eta sozial interesgarriak. Osoki ezagunak ez direnak eta hurrengo lerroetan azaldu nahi direnak.

Jaiotako feminismoaren alaba honen izate-arrazoi nagusiak, korronteak eta irakurketa nagusiak azaltzea da helburu nagusia, aurretik paratu galderagai zabalen bitartez. Gorputz teoriko berri honen ama eta aita diren horien arteko harremana azterketatik hasi, eta berezkoa duen diskurtso ideologikoaren bihotzera heldu nahi da.

Osoki zaila den sinbolismoaren munduan jaiotako mugimendua, prosa poetikoz jantzita aurkeztu zen gorputza, eraldatuz eta familia handituz joan da azken hamarkadetan. Gorputz teoriko horren garapena nolakoa izan den, non kokatzen den sorrera eta egun bere barnean diren korronteen arteko harremana aztertzea da idazki honen izate-nahia eta gauzatzearen arrazoa. Ekofeminismoaren hasietatik egungo egoera aztertzerantz heldu nahi den hurbilketa teorikoa da hau.

Munduari bira eman nahi dioten bi mugimendu sozial berri garrantzitsuenak harremanetan jarri nahi dituen gorputzari lerro batzuk, gogoeta batzuk eta azterketa zenbait zuzentzea dugu, bederen, nahirik barneko eta umilena. Emakumeek egungo gatazka sustraizkoenari so egin diote, goazen bada euren arrazoi, nahiak eta ulerkerak aztertzen. Gerta lekiguke, pentsatu baino gertuago egotea planteamendu ekofeministetatik...

Zer da ekofeminismoa? Historia apur bat

Ekofeminismoa «antzinako jakin alor bat izendatzeko berba neologikoa» (Shiva, 1987) 70eko eta 80ko hamarkadetan sortutako gizarte-mugimendu desberdinen talkarekin —mugimendu feminista, bakezale eta ekologistaren talkarekin— garatzen hasi zen. Nahiz eta Françoise d'Eaubonne (d' Eaubonne, 1980) dugun kontzeptua usatu zuen lehena, hasierako esanahi hau, hondamendi ekologiko errepikatuen ondorioz sortu ziren emakumeen gaitzespen multzoa izendatzeko erabili izan zen. Izan ere, Three Mile Island-eko erreaktore nuklearraren eztandak emakume estatubatuar anitzen ahotsen altxatzea ekarri zuen. Horrek, lehenengo konferentzia ekofeministaren deialdia sustatu zuen (Amherst-en, 1980ko martxoan), horrekin, bereziki bi mugimendu sozial berrien (ekologismoa eta feminismoa, feminismoa eta ekologismoa) esperientzia eta aldarrikapenak barneratzen dituen gorputz teorikoa hasi zen garatzen. Konferentzian bertan, geroago ekofeminismoaren osotasuna garatuko duten kezken eta ideien eztabaida jorratu zen. Alegia, feminismoaren eta antimilitarizazioaren arteko lotura, feminismoaren eta "sendatzeko artearen" arteko harremana, feminismo eta ekologiarena, eta abar.

Konferentzian bertan, sortzeke zen gorputz teoriko honen definizio anitz entzun baziren ere, Ynestra King konstruktibistak paratu zuena hartzen da maiz abiapuntu:

Teoriaren eta praktikaren arteko loturan datza ekofeminismoa, (...) emakumeekin identifikatzen den mugimendua da, pairatzen gabiltzan mehatxu ekologikoa-

ren kontra borrokatzeko deitu gaituzten emakumeak gara. Munduan zehar eztanda egiten duten gatazka ekologikoak feminismoaren ardurapean egon badaude eta egon behar dira (King, 1983: 10)

Nahiz eta Frantzian aurkitu hasierako ekofeminismoaren aztarna, ez da bertan garatuko korrante teoriko hau, mundu anglosaxoian baizik. Mugimenduaren formulazio teokikoak Ipar Amerikan eman ziren, Susan Griffin, Carolyn Merchant eta Mary Daly-ren eskutik batik bat. Mary Daly dugu teoriaririk ezagunena, ekofeminismo klasikoaren amatzat hartu dute askok, bai eta feminismo kultural amerikarraren ama ere.

Bitartean, geroago ekofeminismoan desberdintasun teorikoak sortuko zituen haustura garatzen hasia zen —Ipar/Hego haustura, hain zuzen ere—; Ipar Amerikako formulazio teoriko horiek ematen hasiak zirenean, Hego Amerikan eta Ekialde Hurbilean teoriaren formulazioaz baino naturaren defentsarako ekintza zuzenak jorratzeaz arduratu ziren gehiago (Chipko mugimendua, etab.). Hala ere, mugimendu horren ildo guztiak emakumeak naturarekin duen lotura eta harremana azaltzearekin daude arduraturik, baina hasierako abiapuntu teoriko praktikoa desberdinu horiek azaltzen dute, hain zuzen ere, eztabaida-planoan horrenbeste jarrera egotea.

Osasuna da, ekofeminismoa bere ildo filosofiko orotan, sortzeko abiapuntu garrantzitsuenetariko bat. Norberaren gorputzaren kontrola berreskuratzearekin hartu zen hasierako ardura. Kutsadura industrialak maneiatzen duen gure gorputzen kontrola berreskuratzearekin, hain zuzen ere. Airea, lurra eta ura zitaltzen dituen teknologiaren garapena, gerratearekin osoki lotuta dagoen teknologia-garapena, eta bizitzari herra baino erakusten ez dion eredu teknologikoa, gizonak bizitza emateko duen ezgaitasunaren aiherkundeagatik azaltzen du ekofeminismoak (Puelo, 2000: 38). Ekologia eta bakezaletasuna biltzen dira, horrela, gatazka garaikideen irakurketa feminista honetan. Logikoa dirudi feminismitik bertatik emakumeek naturarekin duten harremana ikertu nahi izateak. Genero-perspektiba, honetan ere, aplikatu nahi izateak. Horretan datza, oro har, ekofeminismoaren izate-nahia.

Gorputz teoriko orotan bezala, mugimendu guztien barne bezala, honetan ere, adar teoriko anitz bizi dira elkarrekin. Feminismo mota asko dauden heinean, bai eta ekologismo mota asko ere, ez da pentsatu behar gauzak asko aldatuko direnik ekofeminismoaren barrenean. Ekofeminismo «poetiko ludikoa»¹, ekofeminismo esentzialista, Hirugarren Munduko ekofeminismoa eta ekofeminismo konstruktibista dira, korrante teoriko honen adar teorikoak. Batzuetan ados, besteetan kontra...

Ekofeminismoak, azken finean, gizarte-mugimendu anitzen gogoetak ditu barne, mugimendu bakezalea, antimilitarista eta bereziki feminista eta ekologista. Emakumeek naturarekiko dugun harremana estai berezi batean kokatzen duen korrante teorikoa da, eta estai horretatik irakurketa desberdinak jorratu ohi dira. Horren ildotik, ekofeminismoak edo ingurune-feminismoak² dituen pentsamendu-

1. Anitzetan kontuan hartzen da lehenengo adar hau ekofeminismoaren barne, baina, Alicia H. Puelo-k bereizketa egiten du, argudiatuz lehenengoa bigarrenaren hasierako forma baino ez dela.

2. Vandana Shiva-k, ekofeminismo berba erabili baino, ingurune-feminismoa nahiago du erabili, ekofeminismoa esentzialismoarekin maiz loturik agertzen delako.

ildoen sorrera dago kokatzerik. Azken finean, emakumeok bizitzarekin dugun lotura berezia aztertzearekin du ardura ingurune feminismoak.

Horrela ekofeminismoak badu bere korrante filosofiko orok partekatzen duten emakumearen eta naturaren arteko harremanaren irakurketa globalaren eskema, hara non hasteko badagoen emakumearen menertzearen eta naturaren menertzearen arteko parekotasuna. Pentsamendu patriarkalaren eskemak emakumea naturaren eskutik darabil; gizona, berriz, kulturaren eskutik doa; natura, bere alde, kulturaren eskupekotzat hartu da. Hortaz, emakumea, gizonezkoaren menekotzat jotzen da. Emakumearen eta naturaren menderakuntza elkarrekin eman direnez, emakumeak, naturaren askapenean du inork baino interes gehiago. Eskema horren ondorioz, mugimendu ekofeministak eta feministek, oro har, sistema berdinzaleak bultzatzen dituzte (Cunz, 1996: 83-97).

Horrelakoxea da, ekofeminismoak, sortzeke dagoen mugimendu berriak, bere parametro teoriko-praktikoak hasteko jarraitzen duen eskema.

Ekologismoa feminismoan ala feminismoa ekologismoan?

Galdera zaila dirudi horrek; oiloa ala arrautza, zeinek sortu zein? itaunaren antzekoa irudi lezakeen arren, bada bai feminismotik, batez ere eman den erantzun posiblearik.

Feminismoa eta ekologismoa, bata zein bestea, XXI. mendeko gizarte-mugimendu garrantzitsuak izanen dira. Naturaren amaieraren hasieran kokatzen hasiak gara. Alegia, ingurumenaren degradazioaren hasieran. Jada, komunikabideek ez dute batere erraza izaten, naturan eta ingurumenean gertatzen diren gatazkekin gainzuritze-lana egitea. Soilik jakin ezak edota jarrera teknoentusiastek jar gaitzakete mundu naturala ez den beste leku batera so. Berebat, etorkizuneko bi mugimendu horien arteko bizikidetzan ezinezkoa da ondorioztatzea lehen begirada batekin, euren arteko harreman berezia existitu behar denik. Horregatio, afera horretan etete teoriko bat egin eta berehala ikusi da beharrizanagatik, bai eta «arrazoi pragmatikoen ondorioz» (Puelo, 2002), bi mugimendu horien arteko elkarriketaren beharra.

Batetik, prebentziozko negoziaketa baten gisara paratzen da feminismoa ekologismoarekin lantzen hasi berri den ekofeminismoaren eskualde teoriko berri hau. Emakumeen askapena, neurri handi batean, industrializazioan egon da oinarriturik, baieztapen hori kontuan izanda; nola eratuko dugu, berebat, azpiegitura garaikiderik, emakumeen askapenerako aukerak moztu gabe?

Alderdi Berdeetan eta mugimendu ekologistetan diharduten emakumeen esperientziek adierazten dute, alderdi zein antolakuntza-eredu ekologistetan, besteetan bezalaxe, antolakuntza-eredu patriarkala anitz antzematen dela. Horrela, «Ekologistak ez dira osoki feminista» eta kontrakoa «Feministak ez dira osoki ekologista, behintzat espainiar mailan» zin-zinez baieztatzen du Alicia Puelo-k, Valladolideko irakasle feministak.

Holaxe, gaur, ekologismoa eta feminismoa bata bestearen sorbaldetara bizi dira, hala ere, etorkizunean, etorkizun utopikoan bederen (*u- topos*), gaur baino

paktu eta lotura gehiago egitera beharturik izanen dira maiz. Horrela, feminismoak bere izate-nahi internazionalista mantendu nahi badu, ezinezkoa du berba ekologistetatik urrunduz; izan ere, Hirugarren Munduko emakumeak baitira hurrengoetan ikusiko denez, ingurumenaren zampaketa lehengo pairatzaileak.

Ekofeminismoak, aurreko eta antzeko aferez arduratzen da, hala ere, ez dago ekofeminismo bakarra, baizik eta euren arteko lehian ari diren ekofeminismo diferentek.

Horrela, ez dago esaterik ekofeminismoa ekologismoaren azpimugimendua denik. Izan ere, ekofeminismoa ez da ekologismoaren baitatik sortu, baizik eta kontrakoa, feminismoaren esparruetatik. Emakumeek gizartean lekuak irabaztearen filosofia feministaren beste ondorio bat da ekofeminismoa. Emakumeek ekologismoak garatu dituen tresnak eta ideiak despatriarkalizatu nahi dituzte. Batzuetan emakumeak naturarekin duen suposiziozko harreman berezi (espiritual) batean oinarriturik, besteetan harreman pragmatiko baten ondorioz, edota emakumearen askapenerako beste eredu baten oinarri, eta abar.

Ekofeminismoaren sorrera;

Osasunarekin loturik agertu zen, emakumea eta bere gorputzarekiko harremana ingurumenarekin gizakiok dugun harremanaren arteko paralelismoa sortuz (...). Egun ongailu anitz botatzen dira baratzetara, naturaren erritmoa aldaraziz, emakumeekin berdin gertatzen da, medikuntza, eta ginekologia munstroak erabiltzen dira emakumearen naturaren kontra egiteko (Mies eta Shiva, 1993: 59- 71).

Naturaren eta emakumearen arteko paralelismo horretatik sortu zen lehengo ekologismoa. Egun, esentzialismoaren lerroetan koka dezakegun hori, 70eko hamarkadan ekofeminismotzat ezagutzen zen bakarra genuen. Hasierako horrek ez zuen munduaren irakurketa ekologistarik egiten, baizik eta ekologismoaren azterketa-objektu komuna partekatzen. Anitzetan helburu komuna, ez erabat, bide eta tresna komunik partekatzen. Ez atzo ez gaur.

Askotan kritikatu izan da feminismoak ekologismoan izan duen sarrera feminismoaren azken helburua —alegia, emakumearen askapena— bidean ahaztuko ote den beldur (Puelo, 2000: 40). Hala apartekoa da ekologismotik gorputz teoriko honi buruzko inolako jarrerarik adierazi ez izan. Ekofeminismoa feminismitik ekologismorako bidaia da, ez, ekologismotik feminismora. Ekofeministak, feminismoaren lerroetatik jaio dira. Mugimendu ekologistarekin harremanetan bizi izan diren emakume eta ekologista sentitzearen ondorioz, graduan gradu.

Generoa, jasangarritasuna eta ingurumena

Parametro ekonomiko hutsetan garatu den ohiko eredu hipergaratuari aurre egiteko sortu ohi zen garapen jasangarriaren paradigma. Izan ere, hasierako eredu hipergaratu horrek ez du erabat kontuan hartzen prozesu ekonomiko eta naturalen jasangarritasuna; horrek injustizia eta desberdintasunak handitzea, bai eta naturaren txikitzea baino ez du ekarri. Hortik, garapen jasangarriaren asmakizunaren beharra, «egungo belaunaldien beharrezko erantzutean baina etorkizuneko gizaldien beharrezko asetzeko behar adina mantentzean» datzana

(Nuestro Furuto Común, 1988). Horrek guztiak belaunaldien barneko eta kanpoko ekitatea egotea adierazten du; alegia, generoen arteko ekitatea bai eta kulturen artekoa ere. Arduratzen gaituen kontzeptu honek, filosofia ekologistan du oinarria, hala ere, eklosio holistikoak beste gai batzuetara esportatu izana azaltzen du.

Jasangarritasunaz eta generoaz anitz idatzi duen emakume boliviarra dugu Teresa Flores Bedregal. Gaiari buruzko *Futuros* aldizkarian jasotako bere azkeneko gogoetak izanen dira, bada atal honen iturri nagusia. T. Flores-ek, bere alde, jada 1972an Barry Commoner-ek eginiko azterketatik abiatu (Commoner, 1971) eta genero-ikuspegia atxikitzen dio. Horrela, iraunkortasun edo jasangarritasunaren kontzeptuan hausnartzeko bidean ekologiaren bost legeetan oinarritzea da beharrezko (Commoner; 1972). Lehengoa: *arreta-printzipioa*; erabat kontu handiz erabili behar dira osoki ezagutzen ez diren teknologia, materialak eta abar, eta naturari eta bizidunei sor diezazkiekegun kalteei erreparatu. Bigarrena: *interdependentzia-printzipioa*; bai naturan zein gizartean ez dago bere kabuz dabilen fenomenorik, guztiek elkarren arteko loturak dituzte. Horrela, gizakiak plano batean egin dezakeen kaltea, besteetan antzemanen da. Hirugarrenik: *eraginkortasun-eta neurritasun-printzipioa*; naturak eman dezakeen guztia ez da debalde. Mendeak eta mendeak behar izan dira errekurtsio natural anitz sortzeko. Horien neurrigabeko harrapakeriak naturaren degradazioa dakar. Laugarrenik: *osotasun-printzipioa*; kontsumo-gizarteko produktu anitz ezin dira birziklatu eta horiek ere nonbait amaituko dute bidea. Errekurtsioen erabilera osoa euren eragina garapen-prozesu osoan aurreikustean datza. Bosgarrenik: *oreka dinamikoaren printzipioa*; natura eraldatze-prozesu jarraituan dago, eta naturaren elementu horietariko baten eskasiak edota faltak oreka naturalaren apurketan du ondorio.

«Gizarte-sistemen oreka-printzipioak ekitatean du oinarria» (Flores, 2003) edozein mailatako desorekak gatazka baino ez dakar eta horren ebazpen ezak apurketa sozialak sor ditzake. Commoner-ek paraturiko azken printzipioa da ekofeminismoaren jasangarritasunari buruz zein ingurumenari buruz genero-ikuspegia aplikatzeko balio izan duen zutabea. Gauzak horrela, oreka-printzipioa ekitatean oinarritzen bada, eta bere alde, ekitateak inpliketzen badu errekurtsioen banaketa justua, kontrakoak, hots, ekitate faltak *giza jasangarritasun* ezara eraman gaitzake.

Ekofeministek jasangarritasun berbaren ulermen gizatiarrean oinarritzen dute euren analisia, horrela, ingurumen jasangarriaz berba egiten dutenean, ez dute soilik, ingurumenaz berba egiten, giza jasangarritasunari eta kulturen jasangarritasunari ere, maiz egiten diete erreferentzia, honela:

...biodibertsitatearen zaintzea etorkizuneko bizitza mantentzeko osoki garrantzitsua bada, kulturen, generoen eta horien arteko ekitatea gordetzea ezinbestekoa dugu gizarte-jasangarritasuna mantendu ahal izateko (Flores, 2003).

Hortik ondoriozta daiteke generoen arteko ekitatea mantentzea ezinbesteko premisa dela munduaren garapen jasangarria lor dadin. Izan ere, emakumeek gizadiaren erdia osatzen dutela egia bada ere, egia da ere, ez dutela errekurtsio ekonomiko, natural eta kulturaletara heltzeko egoera berdinek. Androzentrismoaren menpean bizi dira emakumeak, eta bizitze horretan ez dago inolako jasangarritasunik aurkitzerik. Aberastasunaren eta txirotasunaren arteko desberdintasunak

handitu dituen globalizazio-prozesuak ere, emakumeen kontrako desberdintasunak areagotu ditu³, eta datuek ez dute osoki emakumeen alde jokatzen agertoki horretan. Generoen ateko desberdintasun horiek ez dute, bada, oreka-printzipioaren alde egiten.

Emakume eta gizonen ingurumen-estatusa aztertzeko ezinbestekoa da batak eta besteak errekursoetara heltzeko duten aukera aztertzea. Emakumeak dira:


...kultura gehienetan elikaduraz eta osasunaz arduratzen direnak, hortik, hauek izatea, landareen inguruko jakintza handiagoaren jabe. Gizonezkoek, aldiz, zoruak dituzte are ezagunagoak, ekintza ekonomiko gehienak eurek eramaten baitituzte (Mies eta Shiva, 1993: 80-97)

Horrela V. Shiva eta M. Mies-en ekarpen horrek tokian tokiko eta unean uneko moldatzea jasan dezake. Aurrekoarekin, ondoriozta dezakegu gizarte industrializatuetan, non gizonezkoen esku dagoen ekimen ekonomikoa, etekina jasangarritasunaren gainetik jartzen dela. Bereziki industrializaturik dauden gizarteetan, emakumeak mundu ekonomikotik gertuago bizi eta horretan aritzen direnez, familiari eta ugalketari denbora gutxiago eskain diezaiekete, eta zentzu horretan generoen artean dauden disimetriak murriztagoak dira, hala ere, ez erabatekoak. Garapen-bidean dauden herrialdeetan emakumeek erabateko desberdintasunak jasan behar dituzte, bai, zentzu ekonomikoan, politikoan eta errekurso naturalei loturik daudenetan. Bestalde «ingurumenean jatorria duten gaixotasunek era desberdinean jotzen dute emakume eta gizonengan» (Mies eta Shiva, 1993: 85), nahiz eta emakumea gaixotasun gehiagoren aurrean erantzun biologikoa emateko gai izan, bere egoera sozialagatik arrisku gehiagori aurre egin behar izaten dio, (uren pozoitzea, esaterako, sukaldeetan edo garbiketan diharduten pertsonen, emakumeen gehienbat, kaltegarri gerta lekieke —haurdunaldietan are txarragoak bihurtzen dira emakumearentzako kalte horiek—). Ezbehar naturalen aurrean emakumeak aurrera egiteko gaitasun gutxiago du; izan ere, gizona emigratzera ohituta dago, emakumeak haurrak eta zaharrak ditu bere gain, egoera sozialak eta ezberdintasun sozialak lotzen dute emakumea inguruaren aurrean jarrera bat eta harrera bat izatera. Emakumearen egoerak, ikuspegi sozialetik zein ingurumenaren ikuspegitik, desabantaila handiagoak ditu mundu errealaan aurrean. Garapen jasangarriaren lana, ekofeministek dioten legez, ez da soilik naturarekiko oreka-printzipioa mantentzea, baita emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanetan printzipio hura aplikatzea ere.

Haatik, ekofeminismoak, jatorrizko kontzeptu ekologista den garapen jasangarrian oinarritu eta ekologismotik aldarrikatu den gizakiaren (eta horren ekintza ekonomiko eta bizi-ekintzen) eta ingurumenaren arteko harreman osasuntsua eta adeitsua zabaltzeaz gainera, beste elementu bat sarrarazten du: *gizakia*; *emakume* eta *gizon* banatzen du eta horien artean dauden diferentziak (jatorri soziala dutenak) desagertzearekin batera ingurumenarekiko harreman adeitsua aldarrikatzen

3. 1980an jada 20 txiroko aberats bat bazegoen, lauogeita hamarrek hamarkadarako proportzioa handitu eta 60 txiroren aldean aberats bakarra aurkitzen zen. Gauzak horrela; are grafikoagoa da esatea, txiroen %70 emakume eta haurrak direla. Egutero gosez, gaixotasunez, eta abarrez hiltzen diren 50.000 pertsonetatik, gehienak emakumeak dira. Munduan dauden bederatzehun milioi analfabetoetatik bi herenak emakumeak dira (PNUD, 1996). Datuek ez dute osoki emakumeen alde jokatzen...

du. Izan ere, ez dago bigarren pausoa ematerik lehengoa eman ez bada. Eskematikoki paratzea ere posible liteke:



Iturria: Nik neuk egin.

Emakumea eta jasangarritasuna harreman hori ez da soilik plano teorikoan garatu, ekintzetan ere, ekofeministen jasangarritasunaren teoriak plazaratu dira, horren adibide, RIO 92ko gailurreko proposamenak ez ezik, Johannesburgeko Garapen Jasangarrirako Gailurrerako egin zirenak ere badira. Bietan, Women's Environment and Development Organization (WEDO) erakundearen emakumea eta ingurumena, emakumea eta jasangarritasuna harremanaren inguruko teoriak mundu mailako aldarrikapen bihurtu ziren. Biolentziaren eta garapen jasangarriaren arteko ezinezko harremana begi-bistakoa da. Gerrateek, ingurumen-gatazka anitz eragiteaz gainera, gizarte-ondorio kaltegarriak dituztela argi dago. Zentzu horretan, emakumeek ingurumenarekin daukaten lotura harmoniotsuaz baliatuz, bake soziala eta naturala berreskuratzea paratzen dute batik bat (Varii, 2006).

Emakumeek eta gizonak ez dute ingurumenari buruzko pertzepzio berdina, emakume edo gizon izateak perspektiba bat edo beste izatera eramaten zaitu. Historikoki emakumeek etxean egin dute lan, bidaia gutxi. Rol sozial berezitua eman zaio emakumeari, eta beraz bere rol horren arabera ingurumenaren irudia jorratu du. Gizonak, afera ekonomikotik hurbil izanik, bizitza publikora begira izanik, ingurumenaren beste ikuspegi bat du; ekofeminismoak, beraz, emakumeak historian izan duen rol sozialetik abiatuta (esperientziak, harremanak, jakintzak, eta abar kontuan izanik) ingurumenera eta jasangarritasunera hurbilketa birformulatu nahi du. Alegia, birformulatu gizaki-ingurune harremana, honako kategoriak bereiziz: emakume-gizon, emakume-ingurune, eta gizon-ingurune dikotomiak.

Ekofeminismo esentzialista eta ekofeminismo konstruktibista

Keinuen eta etiketen munduan, iritzi eta desberdintasunen mundu honetan, zaila da korrante bakarra egotea mugimendu sozial, alderdi politiko eta edozein erakunde ideologikotan, halaxe gertatzen da ekofeminismoaren barne ere. Ekofeminismo bakarra ez dagoela argi geratu da jadanik. Egitate horrek ez gaitu zertan harritu, baldin eta kontuan hartzen badugu feminismoa garapen iraunkorrean dagoen ideologia dela.

Milaka ekologismo, milaka feminismo eta milaka sozialismo... irakurketa komun batetik, pertzepzioen araberako ideologiaren munduan, milaka ekofeminismoen ulerkerak egon badaude, baina egun, ekofeminismoaren barnean eztabaidan diren bi taldeen azterketa egitea gerta liteke grafikoena, alegia; ekofeminismo esentzialista eta ekofeminismo konstruktibista.

Iparraldeko hiriguneetan (Washingtonen batez ere) eta Asian (baita Hego Amerikan eta Afrikan ere, baina neurri txikiago batean) hastapenak dituen korrante ekofeminista, ekofeminismo esentzialista, emakumearen eta naturaren arteko enpatia biologikoan oinarritzen da. Carolyn Merchant eta Charlene Spretnak estatubatuarrek dira bozeramaile nagusiak. «Gizonaren eta naturaren artean sortzen ez den enpatia biologikoan». (Alier, 2004: 269). Ekofeminismo mota honek natura emakumeekin eta kultura gizonekin harremanetan jartzen dituen antzinako natura/kultura dualismoa berreskuratzen du. M. Alier-ek ekologismoen artean egiten duen banaketan «baso-bizitzari gurtza» (Alier, 2004: 15) deritzon horrekin hainbat lotura du. *Natura* hitzaren zentzu poetiko eta lirikoa hartzen du korrante honek. Naturaren edertasunean, paisaia ederren miresmenean eta horien mantentzean jartzen dute hitza. Horretarako, emakumeen eta naturaren artean eta gizonen eta kulturaren artean egin den lotura historikoaz baliatzen dira, emakumeak naturarekiko lotura biologikoa duela aldarrikatzeko, eta hortik, emakumeak, berak, natura ezagutzeko eta ulertzeko nolakotasunen garapena azaltzeko. Ekofeminismo mota honek naturaren eta emakumearen sakralizazioa benetan kontuan hartzen du. Korrante honetan kokatzen diren emakumeek anitzetan azaldu dute balio erlijiosoekiko lotura (Ipar-mendebaldeko erlijio nagusiekin). Zenbait kulturatan sakratua benetako sinismena da, eta bai natura bai emakumea sakralizazio bidean kokatu dituzte, are gehiago euren arteko harremana.

Baso-kulturaren fundamentalista feminista hauek anitzetan jaso dituzte beste ekofeministen kritikak; izan ere, euren teorien erdigunean kokatzen baitute emakume-natura eta gizona kultura-ekonomia harremana. Emakumearen beraren askapen kulturalari muzin eginez (Agarwal, 1992)

Abstrakzio aingerutarretik gertu irudikatzen dute esentzialistek emakumea. Zentzu horretan, Alier-en hitzetan, erantzun ziezaikeen emakumearen «desmaterializazioan» sinesten duten horiei; «nahi ala ez, gustatu ala ez gustatu, emakumeak zein gizonak naturaren parte gara» (Alier, 2004: 269).

Laurogeiko hamarkadan ekofeminismo esentzialista honen moldaketa azaldu zen, ekofeminismo espiritualistago baten esku, V. Shiva emakume indiarra izanen dugu horren bozeramailerik ezagutuena. Hegoaldean entzuten dira, gehienbat, ahots horiek. Espiritualismo horrek esentzialismoak gordetzen dituen elementu

anitz izanen dituen arren, horien arteko diferentzia da, lehenengoak, esentzialis-
moak dituen Mendebaldeko elementu erlijioso sinbolikoetatik alde egiten duela.
«Hala ere, espiritualismo honek esentzialismo kutsu handia duela ezin da ukatu»
(Puelo, 2000: 41)

Espiritual hitza anbigua dugu erabat, horrek zailtzen du korrante honen
definizio zehatzik ematea; izan ere, batzuen aburuz *espiritual* erlijio forma bat da,⁴
besteen ustez, natura jainkosa denari erreferentzia emateko izena baino ez da.
V Shiva-k adierazten duenez:

...espiritualitate hori, emetasun-printzipioari erreferentzia egitea da. Ez da zertan
mundu materialetik banaturik bizi den espiritualitate bezala ulertu, baizik eta gauza
guztietan bizi den bizi-indarra bezala (...) Starhawk-ek jada idatzi zuen dimentsio
espiritual horrek emakumeen sentsualitatearekin zerikusi asko duela emakumearen
energia sexualarekin, emakumeak sentitzeko duen erarekin(...) (Mies eta Shiva,
1993: 31).

Bizitzari, naturari eta inguruari zentzu sakratua ematen diete besteak beste
V. Shiva, Mies, Starhawk eta Saral Sakar espiritualistek. Munduan dauden bizitza
guztiak errespetatu behar dira sakralizazio horren barne baitaude, Amalur, Gea,
Gaia, Pacha Mama, eta abar ez datoz bat borroka, min eta injustiziarekin. Hain da
espirituala Shiva-ren aldarrikapena ezen anitzetan proposatu duela erritual eta
dantzen bidez sakralizazio horren barnean bizi den guztiari eskutik heldu beharra
(Shiva, 1997). Argi dago, pentsamendu eta argumentuen abstrakzio espiri-
tualagatik, esentzialismotik kontruktibismotik baino gertuago kokatzen dela Shiva-ren
espiritualismoa.

Ekofeminismo hau, feminismo erradikalak egiten duen antzera, ginekologia eta
medikuntzako forma alternatiboan bila arituko da (Puelo, 2002). Ez soilik femi-
nistek dioten moduan, jaiotzaren medikalizazioaren bitartez mediku eta adituen
eskuetan uzten delako emakumearen gorputza; planteamendu horri, aldagai esen-
tzialista gehituko diote esanez:

...natura eta emakumea zapalkuntza berdinean bizi dira, emakumeari ez zaio
bere semea era naturalean izaten usten, medikamentu eta abarren bidez kontrolatzen
baitu jaiotze-unea. Lurrari ez zaio garapen naturala izaten uzten, hazi eraldatuak, eta
abar erabiltzen direlako, (...) (V. Shiva, 1997:34)

Ekofeminismo klasikoak eta ekofeminismo esentzialistak kritika anitz jaso dituzte
feminismoaren eskutik; batetik, gizonaren satanizazioa egitea atxikitzen diete as-
kok; bestetik, emakumea, naturari eta ez kulturari eta ekonomiari loturik aztertzea-
gatik ere kritikatu ohi zaie. Azterketa ez-ekonomiko globalak paratzea ere atxikitu
diete askok. Hasierako aldarrikatzaile esentzialisten zatitu nahi lesbikoak erraz utzi
zien beste lagun ekofeministei kritikak garatzeko bidea. Egun ere, feminismoaren
sektore desekologizatuetatik ekofeminismo berdin esentzialismo ekuazioa egiten
da. Hain da horrela, ezen, kontruktibistek, esaterako Agarwal-ek (Agarwal, 1996:
37), ekofeminismo hitza ingurune-feminismoagatik aldatzea aldarrikatu dutela
askotan, nahi gabe egiten den lotura kontzeptualetik alde egin nahian.

4. Betiere kontuan izanik ekofeminimo esentzialista honek ez dituela erlijio patriarkala eta emakumeen kontra dagoen fedea oinarritzat hartzen.

Azken ildo horretan topatzen ditugu konstruktibistak. Izenburu horren pean milaka aldaera aurki daitekeen arren, posible da nolabaiteko azalpen globala ematea. Val Plummwood, Ynestra King, Barbara Holland Cunz eta Karen Warren dira korronte horren izenik gaurkoenak. Horien idatzietan oinarriturik teorizazio konplexua duen ekofeminismo honen planteamenduak azal daitezke. Horiek ere, emakumeen kontrako menerapen patriarkala eta naturaren zanpaketa elkarren ondotik jartzen badituzte ere, ez dute emakumearen eta naturaren arteko lotura termino espiritualisten bidez azaltzen. Eurek, emakumeak historian zehar etxeko ekonomiarekin izan duen harremanaren bitartez azaltzen dute emakume-natura harremana, banaketa historiko sozialean oinarritzen dira berezkoak izan litezkeen harreman espiritualetan baino gehiago. Pentsamendu holistikoa garatzen duten heinean, teknologia, ekonomia, natur zientziak, eta abar izanen dituzte aztergai, betiere errealitate material baten eskutik, ez espiritualetik, irakurketa historikoaren bidez eta ez espiritualaren bidez. Hortaz, «(...) emakumearen eta naturaren arteko harreman berezia ez da emakumeak dituen esentzi pertsonalagatik sortutakoa, baizik eta ingurumenarekiko izan duen elkarreraginaren bitartez» (Agarwal, 1998: 55).

Teoria konstruktibista klasikoek egiten duten bezala, ekofeminista konstruktibistek Derrida filosofo frantziarrak paratu dekonstruktibismoaren ideia garatu dute. Horrela, «natura-kultura; gizon-emakume; gorputz-garun» kontzeptuen birdefinizioaren alde agertzen dira. Gizakiak naturarekiko duen harreman historikoaren ibilbidea aztertu eta berreraikitzeari ekin behar zaio. «Ez da esentzia bat, sentimendu bat, miresmen bat, naturaren eta emakumearen arteko harremana gidatzen duena, baizik eta fenomeno historiko bat» (Plummwood, 2002).

Halaber, argi dago, bi korronteez, gorputz teoriko berdinean kokatzen diren heinean, zenbait argudio partekatuko dituztela. Horrela, ambientalismoa paratzen den *kontsumo berdearen*⁵ kontrako argudioetan, neomalthusianismoaren⁶ kontrako argudioetan eta gizonaren eta emakumearen artean dagoen eta gizonaren eta ingurumenaren artean dagoen harreman zapaltzailearen irakurketan, bat datoz bi korronte nagusiak. Nahiz eta ostean, Historian edo Esentzian oinarritu argudioaren garapena egiteko.

V. Shiva, B. Agarwal, Barbara McLintocketik, Reachel Carson eta Barbara Holland Crunz-ek, ekofeministak guztiak, esentzialista, espiritualista zein konstruktibista izan, emakumearen eta naturaren arteko lotura aztertzeaz gainera, ingurumen-gatazken (globalen zein lokalen) sorrera diren aldagaiak porrokatu nahi dituzte.

5. Kontsumismo berdea ambientalismoaren korronte nagusitik paratutako proposamena dugu, (Cumbre de la Tierra, 1992).

6. Neomalthusianismoak naturaren eta naturaren errekurtsioen murrizketak, etab. garapen demografikoarekin lotuta agertzen dela azaltzen du (Alier, 2004).

Iparraldeko ekofeminismo industrialia vs Hirugarren Munduko landa-ekofeminismoa

1912ko apirilak 15, astelehena; Titanic; Amesgaiztoko gau horretan, emakumeak eta umeak izan ziren, hain zuzen ere, onik ateratzeko ahaleginean, kontuan izan ziren lehenengoak. Lehenengo eta bigarren mailan bidaiatzen zuten emakumeak eta umeak.(...) Baina... emakume eta umeen gehiengoa ez zen bizirik atera... hirugarren mailan bidaiatzen zuten (Sidel, 1987).

Ruth Sidel-ek idatzitako lerro horiek ongi adierazten dute ekofeminismoak izan ditzakeen haustura eta korrante ideologikoetatik aparte, badaudela, horien gainetik kokatzen diren beste haustura-lerro batzuk. Ekofeminismoan posible da aldagai berriak sartzea: periferia-zentroa haustura, harreman ekonomikoak, etab.; kontuan izan, eztabaiden zabalitze horrek, haustura berrien sorrera dakarrela. Horren adibide tinkoena Iparraldeko ekofeminismoaren eta Hirugarren Mundukoaren arteko gatazka da. «Lehenengoak emakumearen eta ingurumenaren artean dagoen lotura berba ideologikoetan azaltzen badu ere, bigarrenak osagai materialak ere sartzen ditu» (Agarwal, 1996: 37). Horrela, Titanic-eko argazki hori, mundu mailan ere antzeman daiteke. Horien arteko muga-lerroa marrazteko aldagai anitz badaude ere, (ikuspegi ekonomikoak proposatzen dituenak, osasuna, nazioarteko harremanak, etab.) elkarren artean osoki harremandurik dauden bietan oinarritzea gerta liteke grafikoena; osasunaren inguruan izandako teoriak eta dependentziaren paradigmatik aldarrikatzen dituzten kezkan oinarritzea, hain zuzen ere.

Aitzinetik esan bezala, ekofeminismoaren sorrerari buruz aritzea osasunari buruzko kezkei erreferentzia egitea da. Aurrekoa kontuan hartuta, batetik, zilegizkoa da pentsatzea nolabaiteko garapen ekonomiko arina duen herri baten giza osasuna ez dela erabat garapen ekonomiko eza, txirotasunean, bizi den herriarekin alderagarri. Batzuen kezka, besteen axioma. Ekofeminismoaren sorrerak bultzatu zuen osagaiaren (osasunaren) inguruan pertzepzio desberdinak egoteak ekofeminismoa bitan, hirutan edo lautan banatzea dakar. Horrela, banaketa, bi multzotan egitea erraza da oso. Bestetik, ekonomian sortu zen mundu-ikuspegi dependentista estrukturalista zein neomarxistaren eskutik ezagutzen dugu Prebisch-en zentro-periferia mundu-banaketa interesgarria. Herrien kokapen estrukturalak zehaztu egiten du herriarekiko eta besteekiko harreman mota.

Bi haustura-lerro: osasunari buruzko kezka, eta mundu-kokapen estrukturala. Bi aldagai, baina errealtate berdin baten partaide; gero eta zaurituagoa den ingurune global baten biztanle izatea. Hirugarren Munduko (Sauvy, 1952) tendentzia ekofeministen sorreran, herri horien ingurumenean, mundu-merkatua hornitzera zuzenduta dauden nekazaritza-teknika bortitzen sarrerak sortzen duen bizi-kalitatearen galerak izan du eragin nagusia. Ildo horretan Indiako iparraldean kokatzen den Chipko⁷ mugimendua aurki daiteke —horren bozeramailerik adierazgarriena V. Shiva delarik—, hala ere, haien borroka, antisexista, anticolonialista, edota aldagai biak batera jorratzen dituen borroka dela esan daiteke? Galdera berori aplikatu dakieke Hirugarren Munduan diren Chipko bezalako mugimendu anitzei

7. Chipko (besarkatu zuhaitzak) 1973an Himalayan zuhaitzak salbu jartzeko emakumeen mugimendua da. Urte horretan, irakurtzen ez zekiten emakumeek, kirol-enpresa bat jartzeko moztu nahi ziren zuhaitzak besarkatu eta haien mozketa oztopatu zuten.

(Punen, —Indian— emakumeak ura lortzeko borrokan sartzea batik bat). Hirugarren Mundutik egiten diren irakurketa gehienak, zentro-periferia haustura dute oinarri, horrela, «kolonizazioa, zapalkuntza, dependentzia ekonomikoa, kanpo-zorra, azpigarapena eta kapitalismoa» (V. Shiva, 1993) maiz agertzen eta enbortzen dituzte Hegoaldeko aktibista ekofeministen mintzaldiak. Horrela, Iparraldeko moral bikoitzaren kritika paratzen dute Shiva-k eta espiritualistek:

Iparraldean bizi diren emakume horiek badakite mundua hiltzen ari dela, aldaketa klimatikoa, berotze efektua, etab. horien guztien berri jaso zuten duela denbora luze. Hala ere ez dute euren jokabidea aldarazten.(...) Are gehiago euren kontsumo-ereduarekin akabatu beharrean, esportatu nahi dute mundu osoan zehar, berdintasunaren izenean, hori bai jasanezina Amalurrentzat (Shiva, 1993: 30- 31)

Iparralde-Hegoalde harremanen desorekan oinarritzen dira Hegoaldeko ekofeministak, bai agerian den bizi-baldintzen lehengo diferentzia azaltzeko, bai ingurumenaren zapaketa globala eta emakumearen zapalketa azaltzeko. Iparraldeak Hegoaldeari egiten dion lapurretak ez die soilik Hirugarren Munduko herri lapurtuei zuzenki jotzen, baita ingurumen globalari ere. Hortik, Hegoaldeko ekofeministek, espiritualistak gehienbat (klasikoak), naturarekiko emakumeak duen lotura espirituala azpimarratzeaz aparte, mundu-harremanen irakurketa estrukturalista egiten dute. Prozesu historiko baten bidez Iparraldeak garapena lortu izan du, baina Hegoaldea azpigaratu da ekonomia kapitalistak munduan izan duen hedakuntza-prozesuaren ondorioz. Prozesu historiko eta sozial horren bidez ere, emakumea gizonaren mende gelditu da. Buru desberdinak dituen olagarro baten antzera, Iparraldeko herri garatuak Hegoaldeko herrietatik elikatu ohi dira.

Iparraldeko ekofeministek (esentzialistek eta konstruktibistek, gehienbat) planteamendu ideologikoetan garatzen dute euren ekofeminismoa; esentzialista askok espiritualismoaren praktika anitz kopiatu nahi dituzte, yoga eta tai chia, besteak beste. Esportatu nahi izan dituzte mundu osora beren benetako esanahia galaraziz, eta «luxuzko espiritualitate baten antzera aurkeztu, merkantilizazio-prozesuan sarrarazi (...)» (Shiva, 1992: 156). Horrela, Iparraldeko emakumeek euren jarduera ekonomikoak lurretik gero eta urrunago eta industrietatik gero eta hurbilago kokatzen dituzten heinean, Hirugarren Munduan bizi diren emakumeek baino harreman gutxiago izanen dute lurrekin, landareekin, bizitza naturalarekin. Horiek euren planteamenduetan, hitzak berreraikitzean, emakumea eta kultura lotzean sakondu dute. Hirugarren Mundukoek, berriz, euren bizimodua den lurrari errespetu mistikoa eta lotura desberdina erakutsiko diote.

Ez da mundu mailako emakume ekofeministen elkartasun-sarerik existitzen. Hortik, merkatuak lotzen dituen emakume talde bi horien interesak aurkakoak izatea.

Hala ere, Iparraldeko ekofeministen artean badira, orobat, nolabaiteko desberdintasunak; AEBko ekofeministek Europako ekofeministek baino arreta handiagoa ematen diote esentzialismoari. Izan ere, Iparraldeko lerrorik konstruktibistenetik kritikatu ohi da, espiritualismo zein esentzialismoaren ildo ekofeministek mundu politikotik alde egin nahi izateagatik eta mundu idealean kokatzeko duten nahia-gatik (Shiva, 1992).

Ekofeministak diren heinean eta ekologismoaren kritika partekatzen duten heinean, Iparraldeko zein Hegoaldeko ekofeminismoek naturaren kontrako eta horren zanpaketarako harreman injustuak kritikatzeko dituzte. Bai eta emakumearen kontrako zanpaketa ere, baina Ipar-Hego haustura horrek ikusmiren desberdintasuna dakar eta, horrek, dudarik gabe, naturarekiko jarrera bat ala bestea izatera bultzatzen du.

Hala ere, biek printzipio ekofeminista berbera partekatzen dute: patriarkatu kapitalistak oinarri duen *gerraren zientziaren* printzipioaren kontra borrokatzea. Izan ere, printzipio hori baita mundu bizia bi alde kontrajarritan banatu nahi duena.

Ekofeminismoaren argiak eta itzalak

Esentzialismoa konstruktibismoa baino denboran aurrerago formulatu izana zeharka lotuta dago batak eta besteak jaso dituzten kritiken kopuruarekin. Horrela, feminismoak askotan izan du aztergai ekofeminismoaren gorputz teorikoa eta anitzetan ere paratu ditu erabat konprenigarriak diren planteamendu ideologiko horrekiko ardurak.

Esentzialismoaren eta espiritualismoaren izaera mistikoak feminismo nominalistari ardura sorrarazi dio hainbatetan. Ez da batere harriztekoa feminista horien kezka; izan ere, esentzialistek paratzen duten emakume-natura lotura ez da antzinako gizarte patriarkalak paratzen zuena baino. Horrela, ekofeminista horiek egiten duten irakurketa «emakumea naturaren, izaki bizien eta osasunaren zaindaria eta bizi-emaile» (Puelo, 2002: 44) antzera agertzeak suposatzen du feminismoak bi sexuen arteko berdintasunaren aldarrikapen zentralak alboratzea, etxearen zaindari jatorra den emakumearen estigmatizazioa, trantsizioan dagoen gizarte patriarkal gaurkotuan. Izan ere, esentzialistek ciber-emakume postmodernoari era naturalean egotzi dioten Ama Iraunkor eta betierekoaren alternatibak ez du batere generoen arteko berdintasunaren alde jokatzeko.

Teoria konstruktibistek, mistizismo anakroniko horretatik alde egiten duen heinean, emakumearen eta gizonaren androzentrismoaren irudia bilatzen dute. Horrela, kultura anitzen oinarria izan diren dualismo guztietatik aldendu nahian azaltzen dute euren teoria: emakume-natura eta gizona-kultura bikoteekin akabatu nahi dute. Hala ere, teoria berriegia eta konplexuegia den honek —jakintza teoriko anitzei erreferentzia sakona egiten baitie— bere indarra duen horretan, alegia, teoriaren konplexutasun eta garapen filosofikoan, aurkitzen du paradoxikoki bere arazoa ere. Ekofeminismoaren praxiak planteamendu esentzialistetan izan du oinarria egundaino. Konstruktibistek oraindik ideien mundua ez dute osoki errealtaterako proposamenetan ekarri eta islatu, alegia, «ez dute oraindik politika eta alternatiba zehatzik paratu» (Op. Cit.)

Horrela, ulergarria da arriskutsu oso gertatzea esentzialistek paratzen duten zaintzaren etika feminismoak azken 80 urteetan aldarrikatu duen eskubideen etikarentzat.

Hala ere, ekofeminismoak argi izpiak zabaldu ditu bai emakumearekiko bai naturarekiko harreman justuen aldeko filosofian eta mugimenduan. Horrela adibidez, Carolyn Merchant ekofeminista dugu feminismora ekarritako gogoeta epis-

temologikorik adierazgarrienaren adierazlea (Amorós, 1997: 395-405). Horrela Merchant-ek «Naturaren Heriotzaren» eta gizarte komertzialistak gora egitearen arteko lotura azaltzen du genero-ikuspegitik.

Itzalean mantendu den eta esentzialismo beldurgarriaz estigmatizatu den gorputz teoriko berria ez da horren beldurgarria, ez da horren urrun aurkitzen, askotan metaerrelatuen mundu manikeoa den honetan.

Pentsa liteke gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak handitzea baino ez duela egiten, emakumeek gizonen baino harreman bereziagoa, mistikoagoa, etab. dugula naturarekin esateak. Egia da. Ez dut uste emakumeen askatasunaren alde jokatzeko duenik halako harreman mistikoak formulatzeak. Hala ere, horrek ez ditu zalantzan jarri behar ekofeminismoaren existentziaren zergatia eta izate-nahia. Uste dut ekofeminismoak dituen alde onak azpimarratzea dela beharrezkoa; kontuan izaten badugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-harremanek ez dutela jokoaren tablero berean jokatzeko eta botere-harremanak eta egoera sozio-ekonomikoa ez direla berdindu, ez dago ukatzerik emakumeen parte-hartze politikorako aukeren estruktura ez dela gizonen dutenaren berdina. Sexuen parte hartzeko estruktura berdina ez den bitartean, zilegizkoa dirudi emakumeen parte-hartzea sendotzeko espazio diferentziatuak sortzeak, dinamika propioak, etab. garatu ahal izateko. Hala ere, helburua ez da, emakumeen borrokak gizonen borroketatik aldentzea, desberdintzea eta bakoitzak bere alde garatzea; helburua elkarlana izan behar da, bai ekologismoan, feminismoan, sozialismoan, anarkismoan, etab. Berdintasuna erreala izatera heltzen den arte, emakumeen borrokarako tarteak errespetatzea dagokigu. Historikoki jorratu diren desberdintasun sozialak ez dira egun bat-batean aldatu, ez aldatzen ari, emakumeen egoera, eta herrialde, lurralde eta abarren egoera kontuan hartu behar dira tarte horien beharra dagoen ala ez baloratzeke.

Emakumeen borroka ekologismora, ingurumenera begira jarri da eta era diferentziatuan eraikitzen hasi dira batzuk borroka. Ez nago ados esentzialismoak zein espiritualismoak emakumeen eta naturaren arteko lotura mistiko diskriminatzaile hori sortzearekin, pentsatzen dut berdintasun-harremanak garatu baino gehiago apurtzen dituela. Baina ulertzen dut konstruktibismoak bilatzen duen emakumearentzako borroka ekologistarako tarte diferentziatuen existentzia. Betiere, tarte horiek pixkanaka murriztera jotzen badute. Emakumeek eta gizonen bata bestearen alboan jardutea dela helburua ez dugu ahantzi behar. Hor izanen da, bada, desberdintasunen desagertzea erabatekoa. Jakina da elkartasunetik sortzen dela indarra.

Feminismoak bere izaera globalistari ekiten jarraitu nahi badio, ezinbestekoa du mundua jotzen ari diren ingurumen-kezka eta gatazkei erantzuna ematea. Feminismoak ere zer edo zer esan beharko du horretan guztian.

Utopiarekin (u- topos) topaleku berria sortu du ekofeminismoak, zerumuga erregulatzaile gisa funtziona dezakeen eta aurrean ditugun arazo ekologiko guztiei erantzuna emateko teoria dugu, horregatik ere, gure arreta filosofikoa merezi du. Feminismoak, beste edozein korrante ideologikok bezala, ez die zertan kezka berriei balazta adigaitzik jarri. Bizi garen mundu honetan gertatzen diren gaitzik arriskutsuenetarikoak gure etxea den munduan bertan aurkitzen dira, logikoa

dirudi edozein korrontetatik eta ez soilik ekologismotik, aurpegiz aurpegi begira jartzeak. «Feminismoa da eta izanen da...» (Guerra, 2004: 227- 230) eta izan nahi horretan egungo ardurei begiratzea du zilegi.

Ekofeminismoak erlatibismo postmodernotik urrun diren hainbat ekarpen egin ditu. Ekologismotik feminisмотik baino gertuago dauden neska (gazte) kritiko anitzen sentikortasun feministara heltzeko gorputz teoriko posiblea irudi lezake ekofeminismoak.

Historian zehar behin eta berriz paratu ohi den ideia datorkit burura: emakume gehienei geldotasun politiko eta sozialean murgilduta egotea egotzi zaie. Emakumea jada (inoiz horrela izan bada, faktore sozialek behartua izan da) ez da beldurtzen afera politiko-teknikoen aurrean.

Josepa Brú Bistuer aktibista katalanak dioen moduan:

Emakumeen borroka hauetan berdintasunerako mundu baterako dago leku; emakume-gizonen arteko, gizaki-ingurumenaren arteko zapalkuntza aurkatzeko borrokak berdintasunerako lekua baino ez du uzten. (Bisuter, 1996)

Emakumeek ingurumen aldakor honetan dauden ingurumen-gatazkez ere ardura teorikoa azaltzea da beharrezkoa, morea berdeago bihurtu, berdea moreago, bai eta gorria more eta berdeago...

Bibliografia

- Agarwal, B. (1992): "The Gender and Environment Debate; lessons from India", *Feminist Studies*, **18 (1)**.
- , (1996): "El debate sobre las relaciones entre género y ecología; conclusiones desde India. Mujer y ecología, ¿Una relación contra natura?", *Mientras tanto*, **65**.
- , (1998/VII): "Environmental Management, equity and ecofeminism: debating India's experience", *Journal of Peasant Studies*, **25 (4)**.
- Amorós, C. (1997): *Tiempo de feminismo; sobre feminismo, proyecto ilustrado y postmodernidad*, Cátedra, Madrid.
- Belli, G. (1992): *El ojo de la mujer*, Poesía reunida, Colec. Visor de poesía, Madrid.
- Brú Bisuter, J. (1996): "Las movilizaciones medioambientales desde una perspectiva de género; tres casos de estudio en Catañunya, Andalucía y el País Vasco", *Mientras tanto*, **65**.
- Commoner, B. (1971): *The Closing Circle. Nature, Man & Technology*, Bantam Books, New York
- Cunz, H. (1996): "Las minorías silenciadas en la historia de la teoría", *Mientras tanto*, **65**.
- D. Eaubonne, F. (1980): *Feminism or Death*, New French Feminisms.
- Flores, T. (2003): "Género y desarrollo sostenible", *Futuros*, **1**.
- King, Y. (1983): "The ecofeminist perspective" in L. Caldecott eta S. Leland "Reclaimins the Herat; Women Speak out for life on Heart", *the WOMen's Press*, London.
- Martínez Alier, J. (2004): *El ecologismo de los pobres; conflictos ambientales y lenguajes de valoración*, Icaria, Bartzelona.
- Mies, M. eta Shiva, V. (1993): *Ecofeminismo; Teoría, crítica y perspectivas*, Icaria, Bartzelona.

- Puelo, A. (2000): "Luces y sombras del ecofeminismo". *Asparkia*, investigación Feminista, **11**.
- , (2002): "Feminismo y ecología", *Ecologista*, **31**.
- Plummwood, V. (2002). *Environmental Culture*, Routledge, New York.
- Riechmann, J. (koord.) (2004): *Ética ecológica, propuestas para una reorientación*, ED. Nordan, Comunidad.
- Sidel, R. (1987): *Women and Children Last*, Penguin, New York.
- Shiva, V. (1987): "Fight for Survival", *Illustrated Weekly of Indian*.
- Varii (2006): Sustainable Development Program <<http://www.wedo.org/programs.aspx?mode=development>> [Kontsulta: 2006- XX].
- <http://www.binaagarwal.com/>